



HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN EBAZPENA, 2011-2012, 2012-2013 ETA 2013-2014 IKASTURTEETARAKO HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN HIRU URTEKO PLAN OROKORRA ONARTZEN DUENA.

1.- SARRERA.

Plan orokor honek 2011-2012, 2012-2013 eta 2013-2014 ikasturteetarako Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduera-ildo nagusiak zehazten ditu. Ildo horiek urteko planetan gauzatuko dira, ikasturte bakoitzean egin beharreko esku-hartzeak konkretatuko dituzten planetan, alegia.

2004-2005 ikasturtetik aurrera era sistematikoan jaso da Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileen premiei eta itxaropenei buruzko informazioa, baita zein mailatan dauden pozik jakitekoa ere. Ondorioz, Ikuskaritzak hobekuntzak sartu ditu bere funtzionamenduan eta, halaber, aurrerapausoak eman ditu kalitatea kudeatzeko ISO 9001:2008 arauaren bidez ziurtatutako sisteman. Horiek horrela, oinarri irmo batzuk finkatu dira eta, beraiei esker, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak izango du ikastetxeen errealitatera eta Ikuskaritza zerbitzuko plantilaren bilakaera berera egokitzen diren proposamen berriak datozen hiru urteetan lantzeko aukera.

Azken ikasturteetan gai batzuk nabarmendu dira Ikuskaritzaren jarduerak aurrera eramateko prozesuan:

- Jardueren protokoloak sistematizatzea, kalitatea kudeatzeko erabilitako sistemari esker.
- Ebaluazioaren arloko jarduerari eman zaien garrantzi handiagoa.
- Aholkularitzak, orientabideak eta informazioak Hezkuntza Ikuskaritzari exijitzen dioten dedikazio handia.
- Beste erakunde edo administrazio-sail batzuetatik datozen jarduera eta eskaera batzuekin lankidetzan jarraitzen jarduteko premia.
- Erreferentziako ikuskariaren ardura izatetik talde baten ardura izatera pasa diren jarduera batzuen berrantolamendua.

Bere funtzioak, ikastetxeetan esku hartzea batez ere, betez irakaskuntzaren kalitatean eta zuzentasunean eragina izateko hezkuntza-legeriak finkatzen duen baldintzari ematen dio Hezkuntza Ikuskaritzak erantzuna. Esku-hartze hori ez da legeria betetzen den egiaztatza mugatzen, hezkuntza-proiektuak egiteko ikastetxeei eman beharreko laguntza ere hartzen baitu, eta autoebaluazio eta kanpo ebaluazioaren prozesuetan esku hartzen du, kalitate eta zuzentasunaren printzipioak hezkuntzan beteko direla bermatzeko.

Hiru ikasturteetan plana urtero konkretatzeko prozesuan gero eta garrantzi handiagoa emango zaio ikastetxeetan gauzatu beharreko esku-hartzeari eta ikasle bakoitzari hezkuntza-erantzun onena emateko lagungarri diren antolaketa- eta curriculum-aldagaiak aztertuko dira. Ikuskaritzaren bisitaren bidez gero eta gehiago sakonduko da ikastetxearen ikuspegi globalean eta antolaketa- eta didaktika-egitura gehiago hartuko dira kontuan, gelen funtzionamendua aztertzerantz iritsi arte.

Ikuskaritza Zerbitzu honetan bizitza profesionala bukatzen duten eta, horren ondorioz, lanean hasiko diren pertsonen kopurua oso handia den une honetan gertatzen da esku-hartze indartu eta sakonago hori, baita horrek dakarren eduki profesional handiko prestakuntza-exijentzia ere. Profesionalki benetan garatzeko tokia eta ikasteko erakunde egokia izan behar du, gaurko egoeran batez ere,



Hezkuntza Ikuskaritzak, prestakuntza aurrera eramateko urteko plan bakoitzean diseinatu, planifikatu eta ebaluatutako esku-hartzeen eta kideen talde-lanaren bidez. Hezkuntza Ikuskarien Kidegora sartzeko aukeratze-prozedura bat egin nahi da plan orokor hau indarrean dagoen aldi honetan, plantilari egonkortasun handiagoa emateko asmoz.

Bestalde, Hiru Urteko Plan Orokorra aurrera eramateko, Hezkuntza Ikuskaritza antolatzeko gure Autonomia Erkidegoan eman diren xedapen arau-emaileak berrikusi behar dira plan orokor hori indarrean dagoen aldian. Xedapen arau-emaile horiek ondorengoak dira:

- Abenduaren 11ko 342/2001 DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren antolamendua arautzen duena. (01-12-21eko EHAA).
- Abenduaren 11ko 343/2001 DEKRETUA, Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuen hizkuntz eskakizunen eta berorien derrigortasun-daten erregimen espezifikoa zehazten duena. (01-12-21eko EHAA).
- Urtarrilaren 13ko 3/2009 DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuen zerrenda onartzen duena. (2009-02-23ko EHAA).
- 2002ko ekainaren 18ko AGINDUA, Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa eta funtzionamendua zehazte dituen (02-07-02ko EHAA).

Hiru Urteko Plan honetan esku-hartze globala oinarritzat hartuz, beste gai batzuk konkretatzen dira, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren lan-esparrua kokatzen dutenak: ikuskarien funtzioaren ebaluazioa, prestakuntza-plana, Ikuskaritzaren hartzaile desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzea eta euskararen sustapena eta erabilpena.

Hiru Urteko Plan Orokor honek puntu hauek sartzen ditu: Hezkuntza Ikuskaritzaren egitekoaren eta estrategien formulazioa, 2007/08 ikasturtearen bukaeran egindako berrikuspenaren ondoren, prozesuen mapa, helburu orokorrak, kalitatea eta ziurtagiria kudeatzeko sistemari erantzuten dioten makroprozesuak barne, prestakuntza, euskalduntzea, zerbitzuaren antolaketa eta Hiru Urteko Plan Orokorren ebaluazioa.

2.- EGITEKOA ETA ESTRATEGIAK.

Ikuskaritzan indarrean dauden egitekoak, baloreek eta estrategiek formulazio hau dute:

XEDEA: EAEko Ikuskaritzaren Xedea honako hau da:
1. Indarreko legeria betetzen den kontrolatzea eta, horretarako, behar den aholkularitza eta informazioa ematea.
2. Kalitatezko hezkuntza-sistema lortzen laguntzea.
3. Ikastetxeak eta beren emaitzak zein pertsonala ebaluatzea.
4. Hezkuntza-komunitateko hainbat sektoreen eskubideak bermatzea.
5. Hezkuntza-sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa hezkuntzaadministrazioari ematea.

**IKUSPEGIA: Ikuskaritzak ondorengoa nahi du:**

1. Esleituta dituen funtzioak irizpide teknikoan arabera eta izan ditzakeen kanpoko presioei men egin gabe betetzea.
2. Beraien partaideak ondo prestatutako profesionalak izatea, informazioa eta etengabe eguneratzearen aldeko konpromisoa dutenak.
3. Hezkuntza-komunitateko kide guztiek, ikasleek bereziki, kalitateko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzea.
4. Taldean lan egitea modu koordinatuan eta irizpide bateratuen arabera.
5. Hezkuntza-komunitatearen errespetua eta onarpen soziala jasotzeko merezimendua lortzea.
6. Ikastetxeak eraginkortasunez ebaluatzea.
7. Hezkuntza-sistemaren hobekuntza-prozesua gidatzea etorkizunaren ikuspegiarekin eta arazoei aurrea hartzearekin.

BALIOAK: Gure jokaeren eta jarreraren erreferentzia gisa balio duten balioak hauek dira:

1. Profesionaltasuna: autonomia, errespetua, zintzotasuna eta erantzukizuna.
2. Etengabeko hobekuntzarako jarrera.
3. Erantzun azkarra eskariei: eraginkortasuna eta efizientzia.
4. Talde-lana.

HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN ESTRATEGIAK: Hezkuntza Ikuskaritza hobetzeko honakoak egin beharko lirarteke:

1. Bere zereginak betetzen ari denean, hezkuntza-komunitatearen partaide guztien eta Hezkuntza Administrazioako arduradunen beharrezko eta itxaropenei erantzun.
2. Hezkuntza-komunitateko kideek egindako eskarienganako arreta hobetu.
3. Hezkuntza Ikuskaritzari eta beraren zereginen esparruan egiten dituen jardueri erantzun dieten legezko eta erregelamenduzko betekizunak bete.
4. Ikastetxetara egindako bisiten kalitatea hobetu.
5. Modu planifikatuan, koordinatuan eta taldeetan lan egitea, ikuskaritza arteko lanen banaketa orekatuz eta horiek burutzeko denbora ezarri.
6. Plan egokien bidez Ikuskaritzako langile guztien etengabeko prestakuntza eta parte-hartze aktiboa erraztu.
7. Hezkuntza Ikuskaritzako barne- nahiz kanpo-komunikaziorako kanalak hobetu.
8. Hezkuntza Ikuskaritzako berezko jardueren betekizun eta beharrezkoak egokitzeko beharrezko malgutasuna izan.
9. Ikuskaritzaren funtzionamenduan definitutako prozesuetako akatsen edo hutsegiteen arrazoi posibleak identifikatu eta desagerrarazi, eta horrela prozesuak eraginkorrago izan daitezela lagundu.
10. Hezkuntza Ikuskaritzan lan egiten duten pertsonen errekonozimendua bultzatzea.
11. Lurralde Ordezkaritzaren eta Administrazioako beste zerbitzuen arduradunekin, koordinazioa hobetzea.



Hurrengo hirurtekoan egitekoa, ikuspegia eta baloreak berrikusi eta gaurkotuko dira, Hezkuntza Ikuskaritza kudeatzeko sisteman ezarritakoaren arabera.

3.- HELBURU OROKORRAK.

Hiru urteko plan orokor honekin ondorengo helburu orokorrak lortu nahi dira:

- Ikastetxeak, zuzendaritza-funtzioa eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea eta hezkuntza-sistemaren kanpo ebaluazioetan parte hartzea.
- Hezkuntza Sailaren programek eta proiektuek ikastetxeetan duten garapena kontrolatzea.
- Indarreko legeria eta, zehatzago, ikasturtearen hasierako ebazpenak ikastetxeetan betetzen diren kontrolatzea.
- Hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak betetzen diren bermatzea, indarreko legeriaren arabera.
- Ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea.
- Hiru Urteko Plan Orokor honek eragindako premien arabera ikuskariei prestakuntza ematea.
- Hezkuntza Ikuskaritza antolatzeko eredu berrikustea.
- Barne eta kanpo komunikazioa hobetzea.
- ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzea, zerbitzua hobeto emateko.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren hartzailen, barne eta kanpokoei, premiei eraginkortasunez erantzutea.
- Euskararen erabilpena sustatzea, hizkuntz normalakuntza laguntzeko asmoz.

4.- HELBURUAK GAUZATZEKO ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK.

2010-2011 ikasturtean zehar Ikuskaritzaren egoerari buruzko diagnostiko bat egin zen. Diagnostiko horrek eta 2010-2011ko Urteko Planaren ebaluazioaren ondorioek- batzuk sarreran azaldu dira- aurreko atalean adierazitako helburuetan konkretatzen den Hiru Urteko Plan hau eragin dute. Helburu horiek hurrengo hirurtean esku hartzeko oinarrizko ildo hauen barruan sartzen dira:

4.1. Ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzeak era globalean planifikatzea, jarduera eta lan partzial eta zatikatuak gerta ez daitezten.

Ikastetxeei dagokienez, Hezkuntza Ikuskaritzaren esku-hartzeek ikastetxeen oinarrizko helburuari balioa eransteko izan behar dute lagungarri; ikasle bakoitzari kalitateko hezkuntza-erantzun bat ematea eta ikasteko prozesuetan arrakasta lortzea diren oinarrizko helburuei, alegia. Horren arrazoiak hauek dira: hezkuntzarako eskubidea bermatzeko eraginkortasunez laguntzea da Ikuskaritzaren esku-hartzearen funtsezko printzipioa eta ikasleak dira hezkuntzarako eskubide horren titularrak.

Ikuspegi global baten arabera, azken ikasturteetan, zenbait faktorerengatik, esku-hartze gehiago egin behar izan dira ikastetxeetan eta ikastetxeetatik at, baita jarduera kopuru handia egin ere. Hori dela- eta, kudeatzeko sistemaren esparruan antolatutako prozesuen eta azpiprozesu kopuru handi baten bidez gauzatu da Ikuskaritzak ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzea. Une honetan, sistema aztertu eta berrikustearen emaitza gisa, beste urrats bat ematea planteatzen da. Urrats horretan ikuspegi global eta sistemikoago baten bidez gauzatuko da Ikuskaritzaren jarduera eta ekintza integratu batean konkretatuko da, ikuskariek ikastetxe horietan egin beharreko esku-hartzearen zutabeetako bat izango dena.

Ondorioz, urtero berritzen den ISO ziurtagiriaren bidez kalitatearekiko konpromisoa segurtatu ondoren, ikuspegi globalago bat behar da, hurrengo urteetarako Ikuskaritzaren esku-hartzea orientatuko duena. Urratsak eman behar dira bisita planifikatuen plan bat definitzeko prozesuan, ikastetxeen antolaketan eta funtzionamenduan funtsezkoak diren faktore edo aldagaiak ezagutu eta haien gainean esku hartzeko asmoz, lehen aipatu den kalitatek hezkuntza-erantzun hori ikasleei eman ahal izateko.

Esku-hartze global honen argitan, Ikuskaritzaren urteko planen jarduerak eta denboraren kudeaketa hobeto planifikatuko dira, ohiko jarduerak garatu eta martxan jartzeko, lan gehiegi izan ez dadin eta lan-kargak ikuskarien artean era orekatuan bana daitezten.

Halaber, planifikatutako jardueren eta beste jatorri bat dutenen karga orekatzen saiatuko da eta erreferentziako ikuskariak beren ikastetxeetan eta ikuskarien taldeek egin beharreko lanak definituko dira.

4.2. Ikuskariaren eskuduntzen definiziotik abiatuz, ebaluazioaren ereduak aplikatzea.

Hobekuntzarako mekanismorik indartsuenetariko bat da ebaluazioa. Ebaluazioaren gaian erreferenteak diren egileetako bati, Michael Scriven doktoreari, esaera hau egotzen zaio: “hobetzeko, ebaluatu behar da “. Arrazoiak hauek dira: ebaluazio-prozesuan hobetu behar diren elementuak, nahiz pertsonak, programak edo erakundeak izan, identifikatzea du, hain zuzen, prestakuntza-ebaluazioak helburu.

Zentzu horretan, Hezkuntza Ikuskaritzari agintzen zaion funtzioa betetzen duten pertsonen ebaluazioa garapen profesionala hobetzeko bitartekatiko bat da, baita Ikuskaritza Zerbitzua bera, ikastetxeen funtzionamendua eta, oro har, hezkuntza-sistema hobetzeko ere.

Aurrera eraman den ebaluazioaren ereduak ikuskaritza-funtzioan jarduteko behar diren gaitasun tekniko eta profesionalak, sozialak eta etiko eta profesionalak ditu erreferentetzat. Ikuskaritzaren funtzioetan eraginkortasun handiagoz jardutera bideratutako ebaluazioa da funtsean eta erabilgarritasuna, bideragarritasuna, modu legal eta etikoa eta zehaztapena (emaitza nabarmen eta fidagarriak) estandarren arabera egiten da.

Ebaluazio honen ikuspuntutik, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren zerbitzua hobetzeak bi alde ditu:

- Ikuskaritza Zerbitzuan lan egiten dutenen banakako ebaluazioaren ondorioz gertatzen den hobekuntza.
- Zerbitzuaren hobekuntza, Ikuskaritzako kide guztien ebaluazioaren emaitzak izateagatik. Ondorioz, puntu indartsuak eta zerbitzu osoan hobetu beharreko arloak antzeman dira.

Dagoeneko hasiera eman zaio EAEko Hezkuntza Ikuskaritza ebaluatzen prozesuari eta zerbitzuko pertsonal guztiari eragingo dio, bi fasetan. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langilerien Kudeaketarako zuzendariaren 2010eko maiatzaren 20ko ebazpenaren, zerbitzu-eginkizunean betetzeko Hezkuntza Ikuskaritzaren zenbait lanpostu deitzen zituenaren, bidez EAEko Ikuskaritza Zerbitzura sartu ziren pertsonen ebaluatzen ari zaie lehen fasean. 2011-2012 ikasturtean hasiko den bigarren fasean zerbitzuaren gainontzeko pertsonen ebaluazioa egingo da eta, ondorioz, bi ikuskari talderi ebaluatuko zaie: EAEko Ikuskarien Kidegoan behin-betiko plaza dutenei eta 2010eko maiatzaren 20koa baino lehenagoko ebazpenetan ezarritako deialdien bidez zerbitzura sartu zirenei.

4.3. Prestakuntza hobetzea eta Ikuskaritzaren garapen profesionala sustatzea.

Prestakuntza garapen profesionalaren funtsezko zutabeetako bat da eta gauzatzeko modu desberdinak izango ditu.

Datuek eta begi-bistako gauzek erakusten dutenez, lan berri batean hasten den lehen uneak funtsezkoak dira lan horri lotutako gaitasun profesionalak eskuratzeko orduan. Ikuskaritzaren kasuan, bereziki nabarmena da hau, ikuskari guztiek irakasle gisa, eta kasu askotan zuzendari gisa, jardun duten arren, esperientzia profesional ugari gertatu baitira, eta honi azken urte hauetan zerbitzura sartzen diren pertsonen kopuru handia gehitu behar zaio. Horregatik, garrantzi berezia emango zaie



hurrengo ikasturteetan EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren zerbitzura sartuko diren ikuskarrien hasierako prestakuntzari eta tutoretzari.

EAEko Ikuskaritzan normalean praktikatu den beste prestakuntza mota osagarri bat prestakuntza instituzionala deritzona da. Ikuskaritza Nagusitik sustatzen da prestakuntza hori eta kolektibo guztiari, edo horren zati bati, eragiten dio. Prestakuntza instituzional horrek era desberdinak har ditzake, ostiraletako koordinazio-bileretatik ikastaro monografikoetan parte hartzeraino.

Halaber, izaera zientifiko, tekniko eta profesionaleko eta elkargo edo sindikatu mailako gertaera kolektiboetara joateko erraztasunak emango zaizkie ikuskariei.

Ikuskaritzaren jarduera edo alderdi esanguratsueni buruzko guztien arteko hausnarketa da lehentasuna eman nahi zaion hirugarren prestakuntza mota bat. Izan ere, ezagutza, trebetasun eta balore asko pilatzen dira Hezkuntza Ikuskaritzan eta erakundean partekatu eta hedatu nahi dira. Prestakuntza hori konkretatzeko erak hauek izango dira: ikasturte bakoitzean lurralde desberdinetan martxan jarriko diren mintegi edo foroak eta Ikuskaritzak ohiko esku-hartzeak egin ditzan behar den informazioa eta prestakuntza ematea, esku-hartze horietan behar diren irizpideak bateratzeaz gain.

Horiek horrela, Ikuskaritzaren lana eta hausnarketak hedatzeko prozesuari lehentasuna emateko erak bilatuko dira, kanpo prestakuntza emanez eta artikulu eta argitalpenak eginez. Izan ere, artikulu eta argitalpen horiek prestakuntzaren beste erreferente bat izango dira, kanporako proiektioari begira.

Azaldutako arrazoiengatik prestakuntza-plan bat antolatu da, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren lanaren oinarri diren ezagutzak, trebetasunak eta baloreak kalitatearekin eta ahalik eta eraginkortasun handienarekin lortzea bermatuko duena.

4.4. Ikuskaritza antolatzeko eredia berrikustea.

Esparru honetan Ikuskaritzaren barne antolaketa birdiseinatzen saiatuko da, barne komunikazioari eta, ondorioz, lanean eraginkortasunari laguntzeko. Horretarako, talde-lanaren protokoloa berrikusi eta gaurkotuko da eta Ikuskaritzaren barneko web orria gaurkotuko da.

Erabakiak hartzeko orduan Ikuskaritza osoaren inplikazioa eta esku-hartzea sustatzeko prozedurak egokitu eta bideak bilatuko dira, antolaketa-egitura desberdinen, Lurralde Arteko Batzordearen batez ere, bidez. Halaber, zonalde eta lurralde burutzek eta Ikuskaritza Nagusiak jarduteko eremuak berrikusi eta egokitu dira. Era berean, Ikuskaritzaren zonaldeetan ikuskariei ikastetxeak esleitzeko irizpideak konkretatu dira.

ISO 9001:2008 ziurtagiriaren esparruan, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren egitekoa, ikuspegia eta baloreak berrikusi eta gaurkotuko dira, zerbitzua emateko era hobetuko duen kalitatea kudeatzeko sisteman sakonduz.

Halaber, Hezkuntza Ikuskaritzaren araudi berria egingo da. Araudi horrek bere antolaketa egokitu du, ikastetxeei eta hezkuntza-sistemari era aktiboan erantzun ahal izateko.

4.5. Ikuskaritzaren hartzaile desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzea.

Ikuskaritzaren hartzaile desberdinei azkar, argi eta zehatz erantzuteko, esku hartzeko prozedura bat egingo da, Ikuskaritzaren hartzaile desberdinen eskaerak kontuan hartuta.

Era berean, estandarrak egingo dira, haien arabera Ikuskaritzaren txostenak berrikusi ahal izateko modukoak.

4.6. Euskararen erabilpena sustatzea, hizkuntz normalkuntzari laguntzeko asmoz.

Ahozko, idatzizko eta telematika-komunikazioak Euskara Erabiltzeko 2008-2012ko Planak eta geroago gauza litezkeen planek xedatutakora egokitzeko asmoz, ondorengo puntuak beharrezkoak izango dira:



- Euskararen erabilpena hobetzea, idatzizko mailan batez ere, HE2 egiaztatuta izan arren zailtasunak dituzten horientzat.
- Euskara barne komunikazio eta txostenetan eta ikastetxeekiko harremanetan erabiltzea.
- Euskara Erabiltzeko Planean aurreikusten diren kalitateko komunikazioak sustatzea, testu zuzen, egoki eta argien bidez.
- IRALE programak Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako kontuan hartzen dituen aukerak erabiltzea, Ikuskaritzaren lanaren ezaugarri bereziek ezartzen dituzten mugen barruan.

5.- HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN PROZESUAK.

Ondoren azaltzen den Ikuskaritzaren prozesuen mapa kalitatearen eskuliburuan zehazten dena da. Makroprozesuetan eta prozesuetan egituratzen da.

Makroprozesuak, Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitatea kudeatzeko sistemari erantzuten diotenak, hauek dira:

- **MP 01.- Estrategia, planifikazioa eta antolaketa.**
- **MP 02.- Zerbitzuak identifikatu eta ematea.**
- **MP 03.- Giza baliabideen kudeaketa.**
- **MP 04.- Agirien kudeaketa.**
- **MP 05.- Baliabide materialen kudeaketa.**
- **MP 06.- Neurketa, azterketa eta hobekuntza.**

Ikuskaritzaren estrategia **“Estrategia, planifikazioa eta antolaketa “ MP 01 makroprozesuaren** bidez gauzatzen da eta makroprozesu hori konkretatzeak ematen du zerbitzua eman eta agiriak eta baliabideak kudeatzeko prozesuak orientatu eta zuzentzeko aukera.

Zerbitzua emateko prozesuak **“zerbitzuak identifikatu eta ematea “MP 02 makroprozesuaren** bidez gauzatzen dira eta zerbitzua izatearen arrazoia da, haren jardueraren helburu nagusia. Halaber, makroprozesu horretan sartutako prozesuak azpiprosesu batzuetan sailkatzen dira, Hezkuntza Ikuskaritzak edo kasu bakoitzean arreta eman nahi dioten zerbitzu horien hartzaille motari eman beharreko zerbitzuen arabera.

“Zerbitzuak identifikatu eta prestatzea “ MP 02 makroprozesu honen barruan ondorengo 3 prozesuak sartzen dira:

- PR Ebaluazioa.
- PR Ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globala.
- PR Eskariei eman beharreko arreta.

Prozesu hauek azpiprosesuetan sailkatzen dira, urteko planetan konkretatzen direnak. Azpiprosesuak ebaluazio-, kontrol-, aholkularitza- eta laguntza-funtzioen arabera sailkatuta eta kodifikatuta daude. Kalitatearen eskuliburuak aipatutako zerrenda sartzen du.

“Giza baliabideen kudeaketa “ MP 03, “Agirien kudeaketa “ MP 04 eta “baliabide materialen kudeaketa “ MP 05 makroprozesuen bidez garatzen dira zerbitzua emateko prozesuak garatu ahal izateko behar diren baliabideei laguntza eman eta kudeatzeko prozesuak.

“Giza baliabideen kudeaketa “ MP 03 makroprozesuak haren funtzioak Hezkuntza Ikuskaritzan betetzen dituen pertsonalari lotutako prozesuekin du zerikusia.






“Agirien kudeaketa “ MP 04 makroprozesua dokumentazioaren eta erregistroen kontrolari lotutako prozesu bakar batean gauzatzen da.


“Baliabide materialen kudeaketa “ MP 05 makroprozesua prozesu bakar baten bidez gauzatzen da, administrazio publikoei aplikatzeko araudiaren errekerimenduen bidez arautzen baita Hezkuntza Ikuskaritzan baliabide materialak eskuratu, horien jarraipena egin eta kontrolatzeko prozesua.

Azkenik, **“Neurketa, analisia eta hobekuntza “ MP 06 makroprozesuaren** bidez gauzatzen dira kudeatzeko sistema neurtu eta aztertze prozesuak. Prozesu horiek ematen dute kalitatea kudeatzeko sistemaren funtzionamendua egitura eta berorri buruz informazioa biltzeko aukera, baita, behar izanez gero, behar diren zuzenketa-, prebentzio- eta hobekuntza-jarduerak egitekoa ere.

Urteko planetan eta kalitatea kudeatzeko sisteman konkretatzen dira argibideak eta prozesu eta azpiprosesu bakoitzaren jarduerak aurrera eramateko era.



KONTROLA,
AHOLKU EMATEA,
TXOSTENAK,
ESKUBIDEEN BERMEA,
SISTEMAREN INFORMAZIOA,
ETAB.



6.- IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA.

4.3. atalean azaldu diren printzipioetatik abiatuz, Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzak ondorengo alderdiei emango die lehentasunezko arreta:

- Ikastetxeen eta kalitatea kudeatzeko sistemen ebaluazioa eta auditoriak.
- Zuzendaritza- eta irakaskuntza-funtzioen ebaluazioa.
- Ikastetxeen diagnostiko-ebaluazioa.
- Ikastetxearen agiriak: IHP, ICP, IUP-Memoria, AJA, Elkarbizitza Planak.
- Programazio didaktikoak.
- Berdinen arteko tratu txarrak eta irakasleen kontrako erasoak.
- Bitartekaritza eta gatazken konponketa.
- Ikuskaritzaren lanari lotutako alderdi juridiko eta administratiboetan sakontzea.
- Aplikazio eta tresna informatikoak.
- Beste prestakuntza-ikastaro batzuk, ikuskarien lana betetzean sortzen diren premien arabera.

Prestakuntza-jarduera horiek Hezkuntza Ikuskaritzari prestakuntzarako ematen zaion aurrekontua izango dute eta derrigorrezkotzat joko dira, ikuskari nagusiak horrela erabakitzen duen kasuetan.

Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko, ikuskari nagusiak derrigorrean eman beharko du baimena eta, halaber, Ikuskaritzako lurralde buruaren oniritzia beharrezkoa izango da.

7.- HEZKUNTZA-IKUSKARITZAREN ANTOLAKETA

7.1. ANTOLAKETA.

Urteko planetan konkretatzen den Ikuskaritzaren Plan Orokor hau Lurralde Burutzek zuzentzen dituzten Ikuskaritzako lurralde planekin garatu eta osatuko da. Ikuskaritzako lurralde plan horiek, behar izanez gero, zonalde burutzek egindako ekarpen espezifikokoak sartuko dituzte. Ikuskaritzaren lurralde plan horiek, gutxienez, ondorengo atalak sartuko dituzte:

- Helburuak (Urteko Planarenak ez badira).
- Ikastetxeak ikuskariei esleitzea.
- Zaintzen planifikazioa.
- Aurrera eraman beharreko jardueren lurralde arduradunak izango diren ikuskariak izendatzea.

Ikuskaritzako kideek erreferentziako ikastetxeetan egiten dituzten esku-hartzeak urteko eta lurralde planetan zehazten denaren menpe egongo dira. Edonola ere, ikuskari bakoitzak derrigorrean ikuskatu beharko du ikastetxeetan egiten den jarduera eta lurralde burutzei ahalik eta lasterren eman beharko die ikastetxe horietan gertatzen den edozein intzidentzia nabarmenen berri. Lurralde burutzek lurralde ordezkariak eta ikuskari nagusiak helarazi beharko diete informazio hori berehala.

Ikuskariak bere erreferentziako ikastetxeetan eragin handiagoa izango duela bermatzeko asmoz, ikuskariak esleitutako ikastetxe bakoitza hiru aldiz, gutxienez, bisitatu beharko dituela ezarri da (2002ko ekainaren 18ko aginduaren, Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa eta funtzionamendua zehazten dituenaren, 13. artikulua).

Zentzu horretan, ikasturte bakoitzaren hasieran lehen bisita bat egingo zaio ikastetxe bakoitzari, ikuskariak ikastetxe horretan dauden arazo guztiak ezagutzeko eta jarduera hobetzeko proposamenak egiteko.



Jarduerek beste zonalde batzuetara joatea eskatzen badute, Lurralde Burutzaren baimena izan beharko dute.

Gaixotasunarengatik edo beste arrazoi batzuegatik zonalde buru bat aldi batean ez badago, indarreko legerian ezarritako baldintzak betetzen dituen ikuskariak egingo ditu zonalde buru horren funtzioak.

7.2. IKUSKARIAK IKASTETXEETARA ESLEITZEA.

Hiru Urteko Plan hau aurrera eramaten den urteetan ikuskariak zonalde bakoitzeko ikastetxeetara esleitzeko irizpideak konkretatu beharko dira. Ikuskari bera hezkuntza-ibilbideak osatzen dituzten ikastetxeetara esleitzearen printzipioa hartuko da kontuan, irizpide horiek finkatzeko orduan, indarreko legeriak xedatutakoaren arabera

Indarreko legeri hori aldatu bitartean, ikastetxeak esleitzeko irizpideak hauek izango dira:

1. Ikastetxeko erreferentziako ikuskari bakarra izango da, ikastetxeak ematen dituen etapak eta mailak zeintzuk diren alde batera utzita. Dena den, ikuskariak behar adina ezagutu beharko ditu bere zonaldeko ikastetxeak, urteko planen helburuei erantzuna emateko edo beste edozein premia batengatik beste ikuskari batzuek haienak ez diren beste ikastetxe batzuetan esku hartu ahal izateko. Gainera, zerbitzu-arrazoiengatik ikuskari nagusiak edo Lurralde Burutzak egin ahal izango dio edozein ikuskariri esleitu ez zaion beste edozein ikastetxetan zirkunstantzialki jarduteko eskaera.

2. Lanbide Heziketako Euskal Planaren prestakuntzarako katalogo modularra ematen duten ikastetxe publiko eta pribatuak ikuskari bati esleituko zaizkio Eibarko zonaldean, eta bi ikuskariri, gehienez ere, gainontzeko zonaldeetan. Ikuskari horiek 2002ko ekainaren 18ko aginduaren 3. artikuluan aipatzen diren baldintza bereziak bete beharko dituzte. Ikastetxe kopuru horien eta zonaldeko ikastetxe guztien arabera, ikuskari horiei zonaldeko beste ikastetxe batzuk esleitu ahal izango zaizkie, batez ere heziketa-ziklo kopuru handia duten ikastetxe horiek.

3. Era orekatuan banatu behar dira zonalde bakoitzeko ikuskariek, ikastetxeei begira, izango dituzten lan-kargak. Horretarako, Lurralde Burutzek ondorengo zirkunstantziak hartuko dituzte kontuan:

- Ikuskari bakoitzeko ikastetxe publiko, itunpeko eta pribatuen kopurua.
- Irakasle/ikastetxeko ratioa haietako bakoitzean.
- Ikastetxeen eta Ikuskaritzaren egoitzaren arteko distantzia geografikoa.
- Aparteko konplexutasuna duten ikastetxeak.
- Prestakuntza arautua eta arautu gabekoa dituzten ikastetxeak, arratsaldean ematen diren Batxilergoa eta heziketa-zikloak dituztenak edo Helduen Hezkuntza dutenak.

4. Lurralde Burutzek, ikuskariei ikastetxeak esleitu aurretik, lehen adierazitako zirkunstantziez gain, ondorengo ikuskariei ikastetxeen kopuru txikiagoa esleitu behar zaiela hartu beharko dute kontuan:

- Lurralde buruei.
- Bi azpibatxordetan zatitutako Kalitate Batzordean parte hartzeko ikuskari nagusiak proposatu dituen ikuskariei.
- Urteko planak garatzeko prozesuetan dedikazio espezifiko edo trinkoko lanetan jarduteko, Ikuskaritza Nagusiak edo Lurralde Buruek izendatutako ikuskariei.

5. Ikuskariak ikastetxeetara esleitzeari dagokionez, irizpide hauek definitzen dira:

- Ikuskari bakoitza hezkuntza-ibilbide bereko ikastetxeetara esleitzeari emango zaio lehentasuna.



- Irakaskuntzan edo ikuskaritza-funtzioan izandako esperientzia, baita ikuskarrien prestakuntza ere, hartuko dira kontuan ikuskariak ikastetxe mota desberdinetara esleitzeko orduan.
- Berritzeguneak eta lurralde eremuko ikastetxeak zonalde burutzei, batez ere, esleituko zaizkie.

6. Esleitzeko lehen aipatutako irizpideak errespetatuta, herri txikietako ikastetxe guztiak ikuskari bakar bati esleituko zaizkio.

7. Ikasturtean gaixotasunarengatik edo beste arrazoi batzuegatik ikuskariren batek huts egiten badu, aldi horretan zonalde horretako beste ikuskari batek edo batzuek bere/beren gain hartuko ditu/dituzte ez dagoen ikuskariren erreferentziako ikastetxeak, tokian tokiko zonalde burutzaren proposamenez.

7.3. ZAINZA-EGUNEAN DAUDEN KANPO ESKAEREI EMAN BEHARREKO ARRETAREN ANTOLAKETA. KOORDINAZIO-BILERAK.

Ikastetxeei eta, oro har, publikoari derrigorrean eman beharreko arretak zonalde bakoitzaren egoitzan egunero ikuskariak egotea eskatzen du. Horregatik, astean zaintza-egun bat, gutxienez, ezarriko da ikuskari bakoitzarentzat eta erreferentziako ikastetxeei jakinaraziko zaie.

Horrela defini dezakegu kanpo eskaera bat zaintza-egunean: ahoz edo idatziz egindako edozein proposamen, galdera, kexa edo erreklamazio, edozein ikuskariri edo Hezkuntza Ikuskaritzan zerbitzuak ematen dituen administrazio-pertsonalari zuzendua.

Kanpo eskaera gehienak, ikastetxeei buruzkoak, erreferentziako ikuskariak bere gain hartzea komeni da. Horregatik, une horretan, bulegoan ez egoteagatik edo eten ezin duten jarduera bat izateagatik, eskaerari arreta eman ezin dioten erreferentziako ikuskariak ordezkatzeko egoera gisa interpretatu behar da zaintza.

Eskaerak telefonoz edo eskatzaileak Hezkuntza Ikuskaritzaren bulegoak bisitatuz egin daitezke. Eskaerari administrazio-pertsonalak edo zaintzako ikuskariak ematen badiote arreta eta premiazkoa edo garrantzitsua ez bada, kontsulta-orri edo ohar baten bidez erreferentziako ikuskaritari jakinaraziko zaio. Orri edo ohar horretan eskaeraren datuak eta egin zuen pertsonarekin harremanetan jartzeko datuak agertuko dira.

Eskaera premiazkoa edo garrantzitsua bada, administrazio-pertsonalak zaintzako ikuskaritari jakinaraziko dio. Honek eskatzailea hartuko du, berehala emango dio Lurralde Burutzari gertatutakoaren berri eta eskaera kontsulta-orrian erregistratuko du. Geroago, kontsulta-orri hori erreferentziako ikuskaritari entregatuko dio, honek eskaera ezagutu eta behar bezalako erantzuna eman diezaion. Kontsulta-orri horiek ez dute administrazio-prozedura bati hasiera emateko balio. Kasu hauetan, zaintzako ikuskariak Lurralde Burutzen argibideen arabera jokatuko du eta eskaera, behar izanez gero, intzidentzien programa informatikoan erregistratuko du.

Zonalde burutza bakoitzak asteko zaintzak antolatuko ditu eta egun bakoitzean zaintzako bi ikuskari (Eibarren izan ezik), gutxienez, egotea bermatuko du. Ikuskari horiek hezkuntza-maila desberdinetan ezagutza espezifikokoak izan beharko dituzte. Halaber, zonalde burutzak haien erreferentziako ikuskaritari esleitutako zaintza-egunaren berri emango die ikastetxeei eta premiazkoak ez diren eskaera eta informazioak egun horretan bideratzea eskatuko du.

Ikuskari bakoitzari esleitutako zaintza-eguna errespetatuko da. Justifikatutako arrazoi batengatik ezin bada, Zonalde Burutzari jakinaraziko zaio eta honek ikuskari hori nork ordezkatzeko duen erabakiko du.

Ikuskaritzako taldeen koordinazioa eta prestakuntza segurtatzeko asmoz, astean beste egun bat, ostirala zehatzago esanda, ezarriko da, Ikuskaritzako kide guztiak egoitzan egon daitezzen edo deitzen diren prestakuntza-saioretara joan daitezzen.

7.4. LAN-TALDEAK ETA BATZORDEAK.

Indarreko legerian erabakitzen diren lurralde arteko eta lurralde koordinaziorako batzordeez gain, ondorengo lan-talde eta batzordeek ere funtzionatuko dute plan hau indarrean dagoen aldian:

Kalitate Batzordea.

Batzorde hau ikuskari nagusiaren menpe egongo da eta lurralde bakoitzeko ikuskariak osatuko dute. Ikuskaritzak egiten dituen jarduera guztiak hobetzea izango du helburu eta ondorengo azpibatzerdeetan sailkatuko da:

a) Kalitatea kudeatzeko sistemaren azpibatzerdea. Ondorengo funtzioak izango ditu:

- Ikuskaritzaren kalitatea kudeatzeko sistemaren dokumentazio guztia kontrolatu, berrikusi eta gaurkotzea.
- Sistemak, bere jarduerak egitean, dituen errekerimenduei buruzko aholkularitza talde desberdinei ematea.
- Ikuskaritzaren kalitatea kudeatzeko sistema aplikatzeko orduan proposatzen diren aldaketa eta jardueren berri ikuskari nagusiari ematea, aztertze eta, behar izanez gero, onartzeko.
- Kalitatea kudeatzeko sistemaren barruan esleituta duen beste edozein.

b) Esku-hartze profesionala hobetzeko azpibatzerdea. Ondorengo funtzioak izango ditu:

- Ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzea globalki diseinatzea eta ikasturte bakoitzeko hiru hilean behingo esku-hartzeak planifikatzea.
- Ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalaren berezko prestakuntza-premiak definitzea eta prestakuntza hori eskuratzeko bitartekoak proposatzea.
- Esku-hartze globala osatzen duen jarduera bakoitzerako irizpide bateratuak definitzea.
- Antolaketa-egiturari buruzko proposamenak egitea, garapen profesional handiagoa eduki ahal izateko.

Prozesu eta azpiprozesuen taldeak.

- Urteko Planen prozesuak edo azpiprozesuak planifikatzeaz arduratzen diren taldeek ondorengo eginkizunak izango dituzte:
- Esleitutako prozesua edo azpiprozesua diseinatu eta planifikatzea.
- Prozesua edo azpiprozesua aurrera eramateko argibideak eta behar den dokumentazioa hedatzea.
- Prozesua edo azpiprozesua lurraldeetan gauzatzeko garapena lideratu eta koordinatzea.
- Behar den txostena egitea, prozesua edo azpiprozesua bera ebaluatuz eta egin daitezkeen hobekuntza-jarduerak proposatuz.

Kalitate azpibatzerdeetako eta prozesu eta azpiprozesuetako taldeen arduradunek ondorengo funtzioak izango dituzte:

Kalitate azpibatzerdeetako arduradunek:

- Azpibatzerdeko kideek egiteko asmoa duten jarduerak planifikatu eta programatzea.
- Behar diren txostenak egitearen ardura hartzea, azpibatzerdeko gainontzeko kideekin lankidetzan.

Prozesu eta azpiprozesuetako taldeen arduradunek:

- Taldeetako kideek egiteko asmoa duten jarduerak planifikatu eta programatzea. Ikuskaritza Nagusiari emango diote informazioa.
- Diseinua, planifikazioarekin eta prozesua edo azpiprozesua gauzatzeko erabiltzeko asmoa dagoen lan-metodologiarekin batera, Lurraldearteko Koordinazio-Batzordean onartzeko.
- Prozesua edo azpiprozesua gauzatzeko ezarritako prozedura ikuskatzea.
- Taldeko gainontzeko kideekin lankidetzan, behar den txostena egitearen ardura hartzea.
- Parte hartzen duten ikuskarien aldetik jasotako informaziotik abiatuz, jarduera nola egiten den baloratzea.

7.5. ASTEKO JARDUERAK ETA HIRU HILEAN BEHINGO LABURPENA.

Ikuskarien lanaren izaerak eta haren jardueraren ezaugarri bereziek ematen dute lana malgutasunez antolatzeko aukera. Ikuskari bakoitzak egin beharreko jarduerak planifikatu behar ditu eta zonaldeko buruari emango dio planifikazio horren berri.

Hezkuntza Ikuskaritzaren asteko jarduerak planifikatu, aztertu eta kontrolatzeko eta, halaber, ikasturtean zehar egindako jardueren laburpena egiteko asmoz, ikuskari guztiek aurreikusitako jardueren asteko planifikazioa bete beharko dute. Planifikazio horrek programatutako bisita eta irteerak sartuko ditu eta lurralde eta zonalde burutzen eskura egongo da.

Geroago, planifikazio hau egindako jardueren errealitateari egokituko zaio. Horretarako, Hezkuntza Ikuskaritzaren aplikazio informatikoa erabiliko da.

8.- HIRU URTEKO PLAN OROKORRAREN EBALUAZIOA.

Hiru Urteko Plan Orokorra urteko planetan konkretatuko da, ikasturte bakoitzaren amaieran ebaluatuko direnak. Haren eremuko azken urteko planaren ebaluazioaren barruan egingo da Hiru Urteko Plan Orokorraren ebaluazioa, hiru urteko planen ebaluazioak eta berrikuspen-txostenak kontuan hartuta.

Horregatik, Hiru Urteko Plan Orokorraren ebaluazioan urteko planen ebaluazioetan eta Ikuskaritza Nagusiak egiten dituen sistemaren berrikuspenetan kontuan hartzen diren alderdien analisisia eta ondorio berberak hartuko dira kontuan.

Hiru Urteko Plan Orokorraren ebaluazioa hirugarren urteko planaren azken memorian agertuko da. Memoria hori Ikuskaritza Nagusiak egingo du eta sistemaren berrikuspena izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 23an

Hezkuntza sailburuordea



Izpta. Mª Antonia Ozcariz Rubio